

XV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Zure egiak, Jauna, argitu egiten ditu oker dabiltzanak,
bide zuzenera itzul daitezzen;
egizu, izenez kristau direnek
egintzetan bete dezatela eta agertu
beren kristau izatea.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dt 30, 10-14

Ondo-ondoan duzu hitza; bete ezazu.

Deuteronomio liburutik

Moisesek honela hitzegin zion herriari: «Entzun Jaunaren, zure Jaungoikoaren, hitza eta bete Haren esanak eta agindu guztiak, Legean idatzirik dauden bezala; itzul zaitez Jaunarengana, zure Jaungoikoarengana, bihotz-bihotzez eta gogo-gogoz.

Izan ere, gaur zuri ematen dizudan agindua ez duzu zailegia, ez dago zuregandik urruti. Ez dago zeruan; ez esan zure baitan: Nor igoko zaigu zerura? Nork hartuko eta guri entzunaraziko, bete dezagun? Ez dago itsasoaz beste aldean; ez esan zure baitan: Nor joango zaigu itsasoaz beste aldera? Nork hartuko eta guri entzunaraziko, bete dezagun? Ondo-ondoan duzu hitza: zure ahoan eta zure bihotzean; bete ezazu».

ERANTZUN SALMOA: Sal 68, 14 eta 17. 30-31. 36ab eta 37

**R/. Murgilduok, bila ezazue Jainkoa,
eta birbiztu bekizue bihotza.**

Nire otoitza, aldiz, Zugana, Jauna,
zure grazi egunean, ene Jainko,
hain onbera baitzara, entzun nazazu,
zure laguntza leiala emadazu.
Entzuidazu, Jauna, samurra baita zure grazia,
zeure erruki handiz niri begira. R/.

Ni, berriz, gizagaixo dohakabe nauzu,
zeure laguntzaz, Jainko, onik atera nazazu.
Jainkoaren izena kantuz dut goratuko,
eta esker on emanez ospatuko. R/.

Jainkoak salbatuko baitu Sion,
eraikiko ditu berriz Judako hiriak.
Haren morroien jatorriak hartuko du ondareztat,
Haren izena maite dutenak biziko dira bertan. R/.

II. IRAKURGAIA: Kol 1, 15-20

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

Jesu Kristo, Jainko ikustezinaren irudi da,
sorkari guztietan lehen semea.
Beronen bidez baitira eginak gauza guztiak,
zeru-lurretakoak, ageri direnak eta ez direnak:
Aulki, Jaun, Nagusi eta Agintedunak;
gauza guztiak Beraren bidez
eta Berarentzat dira eginak.
Diren guztiak baino lehenago da Bera,
eta guztiak Berarengan diraute.
Gorputzaren buru ere Bera da,
Elizaren buru, alegia.
Bera da hasiera, hilen arteko lehen semea,
diren guztietan Bera izan dadin lehenengoa.
Jainkoaren gogoko izan baita
betearen betea Harengan egotea,
eta Haren bidez, gauza guztiak Berekin adiskidetzeari;
Haren gurutzeko odolaz bakeak eginik,
zru-lurretan diren guztiakin.

EBANJELIOA: Lk 10, 25-37

Aleluia: Ik. Jn 6, 63b. 68b

R/. Aleluia.

V/. Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira;
Zuk dauzkazu betiko biziaren hitzak. R/.

Zein dut nik nire lagunurko?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, etorri zen legegizon bat, eta azpikeriaz esan zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut nik, betiko bizia iristeko?» Eta Hark esan zion: «Zer dago Legean idatzirik? Zer irakurtzen duzu han?»

Eta legegizonak: «Maita ezazu Jauna, zeure Jaungoikoa, bihotz-bihotzez, gogo-gogoz zeure indar guztiz, eta zeure adimen osoz; eta zure lagunurkoa, zeure burua bezala». Eta Jesusek erantzun zion: «Ondo esan duzu. Egizu horrela, eta biziko zara». Baina legelariak, bere burua zuritu nahiz, esan zion Jesusi: «Zein dut, ordea, nik nire lagunurko?»

Eta Jesusek orduan: «Gizon bat zetorren behin, Jerusalendik behera, Jerikora, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek, erantzi eta zauritu ondoren, erdi hila utzirik aldegin zuten. Hain zuzen, apaiz bat zetorren bide hartan behera eta ikusi zuen, baina beste bide bazterretik aurrera jarraitu zuen. Berdin egin zuen, han gertatu zen lebitar batek ere: ikusi, eta beste bide bazterretik aurrera jarraitu.

Handik zehar bidez zihoan samariar bat, ordea, hurreratu egin zen eta hala ikusita erruki izan zuen; eta hurbildurik, zauriak lotu zizkion, olio eta ardoa gainera isur

hartu eta ostatura eraman zuen, eta han zaindu. Biharamunean bi denario atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: "Zaindu ezazu, eta gehiago eralkitzen baduzu, neuk ordainduko dizut honakoan".

Hiru horietan, nor deritzazu azaldu zela, lapurren eskuetan erori zen haren lagunurko?» Legelariak erantzun zion: «Harentzat erruki izan zuena». Eta Jesusek orduan: «Zoaz, eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, otoitzean dagoen Elizaren eskaintzari,
eta iguzu, opari hau hartuko dugunok
santuagoak izan gaitzela.

Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zure dohainak harturik, otoitz egiten dizugu, Jauna:
misterio hau ospatzen dugun bakoitzean
gehitu dadila gure salbamena.

Jesu Kristo.